

Armagabetze

adostua, ordenatua eta nazioarteak egiaztatutakoaren alde

Foro Sozial Iraunkorrak, gaian adituak diren ekarpenak jaso eta saio publikoan izaniko eztabaida prozesuaren ondotik eta gaiarekiko egin behar ziren kontraste eta deliberoak harturik, bake prozesuaren atal funtsezko gisa ETA erakundearen armagabetze eta desmantelamendu prozesua diseinatu, garatu eta amaitzeko beharra adierazten du.

Nazioarteko esperientziak erakusten du armagabetze prozesuak baldintza jakin batzuetan egin behar direla, hau da, armagabetzeak borondatezkoa, kontrolatua, ordenatua eta adostua behar duela izan. Soilik horrela bermatu ahal da ETA erakunde armatuaren amaierako orrialdera iristea.

Horretarako, armagabetze prozesu ia guztiak bide hau erraztuko duten erakunde independenteen laguntza eta interbentzioaz baliatzen dira; hauek, Estatuei eta instituzioei, baina baita orokorrean jendarterari, egindakoaz segurtasuna emateko ardura dute.

Horrela, armagabetu behar duen erakundearen borondatezko partehartzea, herrialdeko instituzioen eta eragile politiko eta sozialak tartean sartuz eta, azkenik, izaera independentea duten kanpo eragileen laguntza, armagabetze ordenatu baterako oinarrizko zutabe bihurtzen dira.



Bake
prozesua
indartzeko
Foro
Soziala

Foro
Social
para impulsar
el proceso
de Paz

Forum
Social
pour impulser
le processus
de paix

Social Forum
to promote the Peace process

Indar armatuen armagabetzea eta desmobilizazioa estatu-arteko gatazketako bake prozesuen ezinbesteko osagaiak bilakatu dira

Veronique Dudouet
Berghof Fundazioa



Orain arte aurreratutakoa

Euskal Herrian

2011ko irailaren 28an, Nazioarteko Egiaztatze Batzordea (NEB) eratu zen, ETAk 2011ko urtarrilaren 10ean adierazi zuen “sueten iraunkor, orokor eta egiaztagarria” egiaztatzeko eta, ondoren, 2011ko urriaren 20an, etorri zen “behin betiko biolentziaren amaiera” adierazpena. Eratu zenetik, Batzordeak egiaztatu ahal izan du ETAk estortsio, mehatxu, atentatu eta erailketa guztiekin amaitzeko konpromisoa bete duela.

2013ko apirilean, NEBaren jarduera “ETAren lehergailu, munizio eta armak erabilera operatibotik kanpo uzteko eta aldebakarreko zigilatze prozesua” egiaztatzerazabaldutuzen. 2014ko urtarrilean, ETAk, lehergailu, munizio eta hainbat arma erabilera operatibotik kanpo utzi eta zigilatu zituela egiaztatu zuen Egiaztatze Batzordeak. Era berean, Batzordeak lehen urrats gisa ulertu zuen, ETAren lehergai, munizio eta arma guztiak erabilera operatibotik kanpo uzteko prozesuaren baitan.

Horren ondotik, NEBek adierazi du ETAren txostenak jaso izan dituela, bere armategi, munizio eta lehergailuak erabilera operatibotik kanpo eta zigilatze prozesuarekin jarraitzen duela adieraziz. ETAk, 2014ko martxoaren 1ean publiko egin zuen konpromisoa berretsi dio NBERi, armak, munizioa eta lehergaiak erabileratik kanpo uzteko eta “guztiaren inbentarioa” egitekoa, hain zuzen. Are gehiago, 2014ko uztailaren 19an, ETAk “borroka armatuaren jardura” deiturikoaren baitan, “estruktura logistikoa eta operatiboak desmantelatu zituela” adierazten zuen.

Bake prozesu batean armagabetzeak segurtasunean laguntzen du, protagonisten artean konfiantza eragiten du eta, bistan denez, gatazkan baliatutako armak gaizkileen esku gera ez daitezen ahalbideratzen du. Gustatuko litzaidake gobernu bati entzutea: “Benetan ez digu axola gure gizartean arma ilegalak egoteak”. Ez dut uste horrelako goberneurik dagoenik

Aaro Suonio
Irlandako Armagabetze
Batzordeko kabinete burua

NEBren arabera, eta beste prozesuetako esperientzietatik, inbentarioa egin eta armak, munizioa eta lehergailuak erabilera operatibotik at uztea, erabateko armagabetzeari begirako lehen urrats gisa har daiteke.

Bestalde, ETAk Iparraldeko gizarte zibileko kideekin trukaturako gutunetan, zeintzuek publiko egin diren 2016ko amaieran, aditzera eman du “desarmearen bideari heltzeko prest” dagoela. Esan nahi baita, “nazioarteko eragileen eta gizarte zibilaren bitartez eta euskal instituzioen babesarekin, armak erabileratik kanpo utzi edo baliogabetu eta bere arsenalak desegitea”. Era berean, adierazi duenez, “governuek parte hartzeko borondatea agertzen dugu, prozesuak segurtasun gehiago izan dezan”. Argi utzi du, “gure nahia da, inongo zalantzarik gabe, armagabetze osoa eman dadin”. (urriaren 19 eta azaroaren 15eko gutunak).

ETA eta NEBren artean garatutako prozesua, estatu espainiar eta frantziarraren aldetik etengabe oztopatua izan da. Horrela, Nazioarteko Egiaztatze Batzordeko kideak, ETAk hainbat arma erabilera operatibotik kanpo utzi zituela egiaztatu ondoren, Auzitegi Nazionalera deklaratzera deituak izan ziren, ondoren burutu beharreko lana oztopatuz.

Era berean, Iparraldean eta estatu frantziarren burutu diren polizia operazioak. Frantzia eta Espainiako Governuek ETArekin lotura zuten hainbat pertsona atxilotu dituzte, armak eta lehergaiak erabileratik kanpo uzteko lanetan ari zirenak eta hainbat armamentu konfiskatu dituzte.

Frantzia eta Espainiaren aldetik egindako azken operazioak ez dira zuzenduak izan ETArekin lotura duten pertsonen aurka, gizarte zibileko pertsona esanguratsuen aurka baizik, zeintzuek beren borondatea agertu duten ETAREN desarmearen prozesuan lagundu eta parte hartzeko, bakegintzak pairatzen duen blokeo egoera honen aurrean beren ekarpena eginez. Horrela, gizarte zibilaren parte hartze zuzenaren aurrean gaudela esan dezakegu.

Gertatutako guztiaren ondorioz, prozesu hau guztia atzeratzen joan da. Bestalde, gizarte zibilaren aurkako azken operazioak agerian uzten du bermeekin eta modu ordenatuan egin beharreko prozesuari heltzeko premia.

Zailtasun hauen gainetik, modu positiboan baloratu behar ETAk jarraian esandakoa.

2016ko azaroaren 15ean eta gutun bitartez ETAk euskal gizarte zibilari jarraian aipatzen diren erabakiak hartu zituela adierazten zien:

-“Behin armen eta lerhegaien inbentariatu eta sigilatze lanak amaitu ostean (bai teknikoki bideragarria den neurrian, bederen), armagabetzearen faseari heltzea.

-Nazioarteko eragileei laguntza eskatzea fase honi heltzeko orduan. Zentzu honetan, NEBari eskatuko zaio bere misioa alda dezala, desarmean inplikatzeko asmoz eta prozesu honen fede eman dezan.

-Armagabetzearen ardura tekniko eta politikoa gizarte zibilaren esku uztea.

-Ahalik eta lehenbaitlehen, ETA erakunde desarmatu giza ezaugarritzea”.

Eusko Jaurlaritzak, 2014ko abenduaren 12an, “armagabetze azkar, egiaztagarri eta eraginkor baterako prozedura aurkeztu zuen, ETAk euskal jendar-tearen aurreko aldebakarreko keinua oinarri hartuta, jendar-tearen, nazioar-tearen eta instituzioen babesarekin”. 2016ko azaroaren 6an “itxiera ordenatu” baterako deia egiten zuen bake prozesuan aurrera egin ahal izateko.

Abenduaren 19an, Ipar Euskal Herriko 600 hautagaik (parlamentari gehienak eta alkateen artean erdiak), jarrera politiko ia guztiak ordezkatzuz (Les Républicains, Union des Démocrates et Indépendants (UDI), MoDem, Alderdi Sozialista, Europe Ecologie Les Verts (EELV) edo EHBai), gutun bat helerazi zioten frantziar gobernuari eta bidenabar espainiar gobernuari ere eskaera luzatzen zioten, “armagabetze prozesuan busti daitezten eta hein berean gatazkaren konponbide osoan”, eskatuz.

Abenduaren 22an, eta adierazpen bateratu baten bidez, PNV, Ehbildu, Geroa Bai, Podemos Nafarroa eta Donostia, ELA, LAB, ESK, STEILAS, EHNE Bizkaia eta Antikapitalistak zera adierazten zuten, hainbat gairen artean:

-“Espainiar nahiz frantziar gobernuari beren ardurari hel diezaioten eskatzea, hots, armagabetze ordenatu, kontrolatu, ziur eta gardenean esku har dezaten eskatzea, nazioartean antzeko kasuetan aplikatzen diren estandarren haritik.”

“-Zeregin honetan egiaztatzeko bitarteko independenteak behar direla, NEB kasu, gure instituzioen, alderdien eta euskal gizartea ordezkatzeko erakundeak aldetik onartua dena.”

“-Era berean, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuaren esku hartzearen alde egitea, segurtasunaren alorrean dituzten eskumenak aintzat hartuta, armagabetzea arrakastaz amaitu dadin ekarpen esanguratsua dagokielako. Bestalde, Gasteiz eta Iruñeako parlamentuak, baita Iparraldean osatu den Mankomunitateak ere, prozesuaren segimendua egiteko aukera izan behar dutela pentsatzen dugu.”

“-Armagabetzearen prozesua arrakastaz amaitu dadin bermea ordezkatzeko gaituzten instituzioen, egiaztatze instantzien eta gizarte zibileko erakundearen arteko artikulazio egokian datza. Horregatik, gaur eta hemen, bakea lortzeko gure erakunde politiko eta sindikalen konpromisoa agertu nahi dugu.”

Hein berean, Podemos Euskadi, Ezker Anitza-IU, Equo Euskadi, Podemos Nafarroa, IU Nafarroa eta Batzarrek diotenez, “Gobernu zentralak armagabetze prozesua errazteko behar politiko eta morala du. Zeregin hori gainera, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuaren arteko elkarlanean burutu behar da. Ere honetan, zorrotasuna, ardura eta urruneko begirada gailendu behar dira”. Zera gehitzen dute gainera: “antolatutako gizarte zibilaren jarduna lehen eta orain beharrezko aktiboa dela pentsatzen dugu, biolentziari aurre egiteko orduan eta bakea erditzeko asmoz”. Eta, “eragile sozialen papera ez da aurretik aipaturiko hainbatentzat utzikeria ordezkatzeko, ez, armagabetzea modu egokian, ziurtasun eta berme guztiekin alegia, egin dadin giro soziala sortzea baizik.

CCOOk, bere aldetik, zera zioen: “Espainiako Gobernuak eta Frantziakoak armagabetze prozesua erraztu behar dute, Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean, honen inguruko azken ardura ETArena izaki”.

Esandakoaz gain, Baionako Adierazpenak (2014/10/24) Iparraldeko gehien-go politiko eta sozialaren babesarekin, “ETA eta Frantziako Gobernuaren arteko akordioaren beharra azpimarratzen zuen, nazioarteko kontrolarekin, ETAk Frantzian dituen azpiegiturak desmantelatzeko eta armagabetze prozeduraren baldintzak definitzeko. Parisko Konferentziak (2015/6/11) dei

egiten zien Frantzia eta Espainiako Gobernuei “Euskal Herriko gatazkaren konponbidean modu errealean parte har zezaten, kaltetutako nazioen interesen izenean”



Aurrera jarraitzeko irizpideak

Esandako guztiaren arabera, Foro Sozial Iraunkorretik beharrezkoa deritzogu, zailtasunak zailtasun, ETAk, arma, lehergai eta munizioak erabilera operatibotik kanpo uzteko eta inbentarioa egiteko NBEkin hartutako konpromisoak bete ostean, eta bere artsenalen suntsitze prozesuari ekiteko bere borondate osoa agertuta, egindako prozesua bururaino eramatea, armagabetzea gizarte zibilaren esku utziz.

Zentzu honetan, ETak azaldutako borondatea positiboa dela deritzogu, NE-Bari bere misioa aldatzeko eskatu baitio, berau zabalduz, armagabetzean busti dadin eskatuz prozesu honetan bere lekukotza eskainiz.

Nazioarteko esperientziak zera erakusten digu, armagabetze eta suntsitze prozesuak irizpide hauen arabera eman behar direla:

Biztanleriarekiko segurtasunean

Arriskugarriak diren arma, munizio eta lehergaien suntsitze prozesu batetaz ari gara. Honek suntsitze prozesu osoa biztanleriarekiko segurtasun berme guztiekin egin behar dela erakusten digu. Ezin da edozein moldetan egin. Ezein arrisku ekidin behar da.

Arma eta lehergailuen erabateko kontrola

Ezaugarri honetako prozesuak arma eta lehergailuen gaineko kontrol handia eskatzen du, erabatekoa dela ziurtatzeko eta ezer kontrolik gabe gera ez dadin. Armak eta lehergailuak jendartearen onurarako erabat deuseztuak

Konfiantza sortzeko neurriak lagungarriak dira aukerak kudeatzeko orduan; dekomisoan, kanpo laguntzak eta tokiko lekukoenak baliagarriak izan ziren egon zitekeen konfiantza eza gainditu eta afera hori prozesu politikoan modu egokian bideratzeko orduan

Aaro Suonio

izan daitezen bermatu behar da ez daitezen hirugarren batzuen eskuetan eror.

Ahalik eta gardentasun handiena, jendarteari aurrerapenen berri emanez

Prozesua, erakunde ilegal baten desarmeaz ari garenez, justiziarengandik ihesi diren pertsonak burutu behar dute, beraz, diskrezioa eta segurtasun neurri handiak hartu behar dira noiz, nork eta nola egin zehazteko. Halere, derrigorrezkoa da, era berean eta ahal den neurrian, gardentasun handienarekin egitea, jendarteak aurrerapenen berri izan dezan.

Jasangarritasuna ere denboretan, adostutako egutegi baten arabera beharrezkoa den denboraz haratago luzatu ez dadin

“Tempus”-a ere beharrezko elementua da. Prozesua kontrolpean nahi badugu, jendarteari segurtasuna emateko; honek denboran jasagarria izatea eskatzen du, alferreko luzamendurik gabekoa. Gai honek segurtasunarekin ere lotura badu eta hortaz kontutan hartu beharrezkoa da.

Tartean daudenentzat ingurune ziuerra

Armagabetze prozesu batek armagabetu nahi duen erakundearen borondatezko partehartzea eskatzen du eta horrek, derrigorrean, partehartu nahi duten pertsonentzat zein kanpoko laguntzaileentzat, ingurune ziuerra eskatzen du. Ez da munduan armagabetze prozesurik eman tartean dauden pertsonak edo laguntzaileak atxilotzeko arriskuan egonik.

Parte hartzen duten eragileen legimititatea mandatu argien bitartez

Armagabetze prozesuek kanpoko partehartzea eskatzen dute eta horrek aldeek adostutako agindu argiak eskatzen ditu. Horrela, NEBaren kasuan, bere lehen mandatua suetena egiaztatzea izan zen eta, ondoren, munizio, lehergai eta armak erabilera operatibotik kanpo uztea.

Guztiak -aktore estatalek eta talde armatuek- kanpo segimendu on baten beharra azpimarratzen dute, armagabetze eta desmobilizazio prozesuan zehar segurtasuna eskaintzeko borrokalariei eta, bestalde, mugimendu hauek benetan armak uzteko duten borondatearen inguruan Estatuaren eta herritar ororen konfiantza areagotzeko

Veronique Dudouet

Zuzenean kaltetuakoen borondate eta baimena

Armagabetze prozesuak borondatezko prozesuak dira, non erakunde armatuek beren borondatez, prozesu zabal edo ez hain zabalaren baitan, urrats hori ematearen tenorera iritsi dela aintzakotzat jotzen duten. Zuzenean kaltetuakoen baimenik gabe ezinezkoa dugu armagabetze prozesuaz hitzegitea. Borondatezkoa izaera horrek ematen dio sendotasuna prozesuari, horrek erakusten baitu ziklo bati itxiera emateko borondatea.

Nazioarteko begiraletza garapen neutralari begira

Biolentzia erabili den prozesu guztien izaerak berak gehienetan armagabetzeko urratsak nazioarteko partaidetza eskatzen dute. Horrela soilik bermatu ahal da prozesu hauen garapen neutrala. Hirugarren batzuen parte-hartzeak mota honetako prozesuak errazten dituzte.

Eragindako gizarte zibilaren parte hartzea

Foro Sozial Iraunkorrean pentsatzen dugunaren arabera, armagabetze prozesua garrantzi handiko kontua da, biolentzia eta honek dakarren polarizazioa pairatu duen eta egun oraindik pairatzen duen herriarentzat, eta beraz, gizartearen parte hartzea, modu batean edo bestean armagabetzea egingo dela ziurtatuz, erabateko balorea du.



Erakunde ilegal batean, normalean soilik pertsona talde txiki batek jakiten du non gordetzen diren armak eta nork kontrolatzen dituen. Armagabetzeko aukera sortzen denean, beraz, aprobetxatu egin behar da, denborarekin jendea hil egin daitekeelako eta, ondorioz, armen pista galdu egin daiteke eta arma horiek beste norbaiten esku geratu. Erakunde militar baten baitan, edo gerrillarien talde batean, komunikazio eta jardun bideak daude. Jendeak gauzak gerta daitezen lagundu dezake ala ez. Bake prozesu batean funtsezkoa da komandoaren estruktura hori mantentzen dela bermatzea, bake prozesua babesten dela eta armen inguruan kontrola bermatzen dela ziurtatuz honela.

Robert MacBride
ANCKo kidea

Bildu garen **eragileak**

Foro Sozial Iraunkorrak goi mailako bilerak mantendu ditu Eusko Jaurlaritzarekin eta Nafarroako Gobernuarekin eta Nafarroako Parlamentuko presidentarekin.

Bilerak eskatu ditugu alderdi politiko guztiekin. EAEn jarraian aipatzen diren alderdiekin bildu gara: EAJ, Podemos, EHBildu, PSE eta Ezker Anitza-IU.

Nafarroan: Gero Bai, Podemos, EHBildu, Ezkerra-Izquierda eta PSNrekin.

Bestalde, epaileak Foro Sozial Iraunkorrari bilera bat ukatu dio David Plarekin, konponbiderako ETaren delegatua, egun Pariseko kartzelan espetxeratua.

Denbora berean, gizarte zibila ordezkatzeko duten eragile hauekin bildu izan gara: ELA, UGT, LAB, CCOO, STEILAS, ESK, EHNE, Sare, Etxerat, Bake-tik, Ahotsak, Uharan, Egiari Zor, Gernika Gogoratuz, Gernika Batzordea, Hitz&Hitz, Bilgune Feminista eta Mundu Bat eta Paz y Dignidad ONGekin, eta maila pertsonalean hainbat norbanakoekin.

Bilera hauetatik guztietatik, ondorio hauek atera ditugu:

Lehena: egindako bilereetatik eragile guztien artean adostasuna dagoela ondorioztatzen dugu, **arsenalen desegitearen bitartez ETaren armagabetze osoari dagokionean.**

Bigarrena: prozesu hau arrazoizko denbora epe batean egin behar da eta adostutako egutegi baten arabera.

Azkenik: prozesu hau nazioartean egiaztatua izan behar du, euskal gizarte osoarui egin denaren ziurtasun osoa eskainiz, baita instituzioei eta eragindako Estatuei ere.



Proposamen zehatzak

Azpimarra egin nahiko nuke erakunde armatu hauek eta beren kideek, beren kabuz arituz, izan beharreko inplikazio zuzenean, borondatezko konfiskazioa burutzeko orrduan. Hegoafrikan ateratako ondorio nagusietako bat hori izan da: gatazkan protagonista direnak ardura nagusia izan dutela beren soldaduak armatu eta armagabetzeko orduan

Veronique Dudouet

Espainiar eta Frantziar gobernuetara deia

Foro Sozial Iraunkorrek beste behin deia luzatzen die espainiar eta frantziar gobernuetara arma, munizio eta lehergailuen suntsiketa prozesuan lagundu edota gutxienez oztopatu ez dezaten. Ezein aurrerapen oztopatzeko egungo politikak, atxilotetak, NEBren kontrola... euskal jendarteak eskatzen duen armagabetzea eragotzi eta atzeratu baino ez dute egiten.

Armagabetzea Egiatatzeko eta monitorizatzeko mekanismoak

Foro Sozial Iraunkorren ustean, behin inbentarioa amaituta, armategiaren suntsiketa prozesuak Monitoretza edo Egiatatzeko Batzorde bat eskatzen du, NEBan oinarrituta, eta euskal erakundeen, jendarte zibilaren eta Nazioarteko Komunitatearen sostengua izango duena.

Segurtasuna euskal jendarteari eta besteei

Armagabetze prozesu honek segurtasuna eskaini behar dio euskal jendarteari, tartean sartzen diren Estatuari eta Nazioarteko Komunitateari, horretarako jarraian aipatuko diren iniziatibak garatuz:

-Armagabetze eta suntsiketa prozesuaren jarraipena egiteko Eusko eta Nafarroako Legebiltzarren eta Monitoretza edo Egiatatzeko Batzordearen arteko lotura mekanismoak ezarri behar dira. Ezaugarri bereko beste Batzorde bat osatu beharko litzateke Ipar Euskal Herriko hautetsiekin.

Konfiskaziorako aurre baldintzak hauek dira: independentzia, inpartzialtasuna, sinesgarritasuna, eta esparru legal bat, zeinean operatu daitekeen, alegia, terroristen edo erakunde eta arma ilegaleen inguruan legedia bat indarrean badago, legediak ere posible egin behar du nazioarteko erakunde baten jarduna

Aaro Suonio

-Antzeko mekanismoak ezarri Eusko Jaurlaritzatik eta Nafarroako Gobernutik. Bakoitzak bere eremu autonomikoan segurtasun eta ordena publikorako eskuduntza propioak dituela kontuan harturik, erabateko armagabetzea ziurtatuko duten bitartekoak izatea komenigarria litzateke.

-Aurrekoen eta gizarte zibil antolatuaren arteko lotura eta bilgune markoak eratzea. Foro Sozial Iraunkorrek bere borondate guztia agertu nahi du NEBrekin, instituzioekin eta tartean diren aktore ezberdinekin lan egiteko.

-Armagabetze eta suntsiketa prozesuaz informatzeko nazioarteko eta europear erakundeekin harremandu, izan ere, arma, lehergailu eta munizioen suntsiketa prozesua berri ona da europear jendarterentzat ere.



Bake
prozesua
indartzeko

Foro
Soziala

Foro
Social
para impulsar
el proceso
de Paz

Forum
Social
pour impulser
le processus
de paix

Social Forum
to promote the Peace process